

Ilea izatea gauza ederra da

Burusoil geratzea ez da kontu samurra eta batzuk, erremedioa jarri nahian, Turkiaraino joaten dira hemen baino dezentez merkeago delako ile-inplanteak egitea. Gai horren inguruan arituko gara sekuentzia honetan.

Ariketa hauek dauzkazu:

- Irratsaioa entzun eta ulermen-galderei erantzun.
- Operazioa egin duen baten esperientzia ordenatu eta ahoz kontatu.
- Gai horren inguruko ezagutza eta iritziak partekatu.
- Lagun baten mezuari erantzun aholkuak emanaz.



1. Burusoil gehien munduan

Ile-inplantei buruzko audioa entzungo dugu hemen, baina aurretik komentatu puntu hauek ondokoarekin:

- Badago tratamendu eraginkorrik ilea ez erortzeko edo galdutakoa berreskuratzeko?
- Ile-transplanterik egin duen pertsonarik ezagutzen duzue?

Orain entzun audioaren hasiera eta erantzun galdera honi.

Zein estatutan daude burusoil gehien munduan?

- Kanadan
- Espainian
- Txekian



<https://labur.eus/9nGJz>



2. Bat al datoz esaldi hauek entzun duzunarekin?

Entzun aurreko audioa osorik arretaz, eta esan ondo esaldiak bat datozen ala ez audioak dioenarekin.

	Egia	Gezurra
1. Espainiatik 10.000 lagun joaten dira urtean Turkiara ile-transplantea egitera.		
2. Hilero etortzen dira Turkiako klinika horietako medikuak Bilbora azalpenak ematera.		
3. Bilbora joan zen hiritarrak aitortzen duenez, konplexu handia dauka eta garbi dauka ile-tratamendu hori egin nahi duela.		
4. Holako tratamendua Espainian egitea Turkian baino hiru aldiz garestiagoa da.		
5. Turkiako Gobernuak tratamendua ez beste guztia ordaintzen du: hegazkina, hotela, garraioa...		
6. Tratamendua ez da garestia, baina gero ez dute ezer ziurtatzen ilea ez dela eroriko.		
7. Espainiako osasun-arduradunak kezkatuta daude gero eta jende gehiago joaten delako atzerrira holako tratamenduak egitera.		

3. Ikerren esperientzia

Ikerrek izan zuen esperientziaren berri ematen du audio honetan.

Entzun eskuineko audioa eta ordenatu ekintzak.


- Bartzelonako frankizia
- Madrilgo klinika
- Operazioa ordaintzea
- Etxera itzultzea
- Burusoil geratzea
- Operazioa
- Turkiara bidaiatzea



<https://labur.eus/mftjN>



Binaka jarrita, kontatu ahoz Ikerren esperientzia hori, ekintza horietan oinarrituta (bukaeran, nahi baduzue konparatu zuen bertsioa *Erantzun-orrian* dagoenarekin)



4. Tentatuta nago

Gai honen inguruan arituko gara talde txikitan. Komentatu puntu hauek:

- Zuek joango al zinatekete Turkiara ile-transplante bat egitera?, edo lagun bati aholkatuko zenioke hori egitea?
- Uste duzue estetikarekin lotutako operazioak Osasun Publikoak ordaindu beharko lituzkeela?



Gai honetaz hitz egiteko, egokia da **aditzak geroaldi hipotetikokoan** erabiltzea:

- Ni ez nintzateke joango Turkiaraino. Ezagutzen dut mutil bat operazio hori egin zuena eta ilea erortzen ari zaio berriro.
- Nire ustez, horrelako operazioak ez lituzke ordaindu behar Osasun Publikoak. Ez da behar bat, estetika-kontua da.

Lagun baten mezua jaso duzu aholku eske. Irakurri mezua:

Zurekin konfiantza handia daukadanez, kontu bat aipatu nahi nizuke. Konturatuko zinenenez, urtez urte ilea galtzen ari naiz eta burusoil gelditzen. Saiatzen naiz disimulatzen, baina horrek konplexu handia sortzen dit. Jadanik etsita nengoen, baina lehengoan aspaldiako lagun batekin egin nuen topo, eta zeharo harrituta geratu nintzen: ni baino ile gutxiago zeukan lehen eta orain, berriz, ile mordoa dauka. Esan zidan atzerrian egin zuela ile-transplantea eta ez dela hain garestia. Tentatuta nago inplante horiek egiteko. Zuk zer gomendatzen didazu?

Erantzun lagunaren mezuari zure iritzia emateko; sekuentzia honetan jasotako informazioa aprobeatza dezakezu horretarako.

ERANTZUNAK

1. Burusoil gehien munduan

Zein estatutan daude burusoil gehien munduan?

Txekian

2. Bat al datoz esaldi hauek entzun duzunarekin?

	Egia	Gezurra
1. Espainiatik 10.000 lagun joaten dira urtean Turkiara ile-transplantea egitera.	X	
2. Hilero etortzen dira Turkiako klinika horietako medikuak Bilbora azalpenak ematera.		X
3. Bilbora joan zen hiritarrak aitortzen duenez, konplexu handia dauka eta garbi dauka ile-tratamendu hori egin nahi duela.		X
4. Holako tratamendua Espainian egitea Turkian baino hiru aldiz garestiagoa da.	X	
5. Turkiako Gobernuak tratamendua ez beste guztia ordaintzen du: hegazkina, hotela, garraioa...		X
6. Tratamendua ez da garestia, baina gero ez dute ezer ziurtatzen ilea ez dela eroriko.		X
7. Espainiako osasun-arduradunak kezkatuta daude gero eta jende gehiago joaten delako atzerrira holako tratamenduak egitera.		X

3. Ikerren esperientzia

- 3. Bartzelonako frankizia
- 2. Madrilgo klinika
- 5. Operazioa ordaintzea
- 7. Etxera itzultzea
- 1. Burusoil geratzea
- 6. Operazioa
- 4. Turkiara bidaiatzea

Ikerren esperientziaren kontaketa

27 urterekin burusoil geratu zen, eta ilea motz-motz moztu zuen. Madrilgo klinika baten galdetu zuen eta esan zioten 16.000-18.000 euro ordaindu behar zuela. Erabaki zuen prezio hori ordaindu baino lehen nahiago zuela burusoil geratu.

Interneten bidez harremanetan jarri zen mikroinjertuak egiten zituen Turkiako enpresa baten Bartzelonako sukurtsal batekin. Egin beharreko probak edo kudeaketa (argazkiak bidali...) egin ondoren, Turkiara joan zen eta han bila joan zitzaizkion aireportura eta hotel dotore batean instalatu zuten. Hurrengo egunean, kontrol-proba batzuk egin zizkieten klinikan, operazioko dirua ordaindu zuen(detaile hori ez zitzaion asko gustatu Ikerri: operatu baino lehen dirua eskatzea) eta hurrengo egunean itzuli zen etxera. Berak dioenez, nahi izanez gero, badago denbora gehiago egotea diru gutxiren truke.

TRANSKRIPZIOAK

1.-2. ariketak

Turkiara ile-inplanteak egitera

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Oihane Bustos, egun on.

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. Ezin ditugu datuak orokortu, ez dugu esango Istanbulen bakarrik dauden 250 erietxeetan gauza bera gertatzen denik, baina Anatómica elkarte edo klinika horretan, datua hori da, hilabetero-hilabetero Euskal Herrietik joandako 50 laguni ile-inplantea egiten dietela.

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Hortaz, Turkia ile-inplanteen potentzia da argi.

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. Ba klinika hauetako bezeroak adibidez, italiarrak eta espainiar estatukoak dira. Eta hara zer datu eman diguten: ile-inplanteak egiten dituen klinika honen arabera, espainiar estatuan dagoela mundu mailako burusoil-kopururik handienetakoa esango dugu. Lehen lurraldea, lehen herrialdea Txekia litzateke, bigarrena, espainiar estatua. Estatuko Zirujia Estetiko Elkartetik eman diguten beste datua: urtero 10.000 lagun joaten direla Turkiako bide hori egitera, eta horietatik zenbat diren Euskal Herrikoak, hori ez digute esan.

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Baina asko direla atera liteke ondorioa.

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. Bai, bai. Bezero-kopurua oso handia da. Esan dizuegu: Anatómica klinikatik esaten digute Bilbo inguruko 50 laguni inplante hori egiten dietela, larunbatean. Horregatik erabaki zuten, lehendabiziko aldiz, Euskal Herrira etortzea; 5 izarretako Domine hotelean egin zioten hitzordua. Eta bi mediku etorri ziren Istanbuletik eta bi itzultzaile. Parean 110 lagun, 110 balizko bezero, eseri zitzaizkien.

Zergatik etorri ziren galdetuta, erantzunak oso antzekoak: lagun batek, lankide batek edo bizilagun batek esanda etorri direla edo ikusi dutelako norbait herrian; galdetu diete, eta haiek kontatuta hurbildu dira Bilbora. Taldean asko, eta gelaren atarian Azkoitiko senar-emazte hauek.

BEZEROA. Ba konplexua da, azken finean. Gaztea naiz oraindik eta beti ilea ederra eduki dut orain arte, baina ja galtzen eta hasi naiz eta preokupazioa-edo. Ez dakit, dudak dauzkat, azken finean tratamendu bat egin behar badaukat de por vida (betiko) edo esaten dena, ba hori ere ez dut nahi. Aber ba ze fiabilitate ematen didaten, eta daukadana gero eroriko zaidan...

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Eta hala sartu dira gelara: han jaso dituzte azalpenak eta medikuen azterketa.

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. Xehetasunak eman dizkiete. Hasteko, prezioarena.

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Zenbat? 1950?

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. 1950 euro bidaia kenduta. Gainerako guztia, klinika honek ordaintzen du. Zergatik horren merke? Hori galdetuko diogu.

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Zergatik horren merke, Euskal Herrian bertan dauden beste klinika batzuen prezioak alderatuta.

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. Euskal Herriko klinikekin alderatuta, halako hiru ordaindu behar da hemen. Eta 2.000 eurotara ez da iristen Turkian. Hori galdetu diogu Nomi Turki, bera da klinika honetako arduraduna.

Turkiako gobernuak dirua ematen diela, laguntzen diela, kontatu digu, zergatik ez dutela ordaintzen. Hori hasteko. Eta bezeroaren hotela, jatekoa, garraioa, hori guztia, Erdoganen gobernuaren kontura doa. Baina hala ere, Istanbulen gobernuak...

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Erdoganen gobernuak orduan, hortaz, ikusi du hor negozioa...

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. Turismoa, argi eta garbi aipatzen dute. Eta lagundu nahi diete. Turista gehiago erakarri nahi dituzte eta estetika erabaki dute horretarako. Hala ere, klinika honetan esaten ziguten larunbatean, Maite, prezioa ez dela erakartzeko kontu bakarra. Oso ohituta daudela, esperientzia handia dutela eta horregatik joaten zaizkiela. Datu bat ere eman digute: egunero dozena bat inplante jartzen dituzte, 12 egunero, asteburuak barne; hilabetean 600 baino gehiago dira.

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Baina entzuleen kezka badakizu zein den, Oihane? Ea segurua den, ea urte bat edo bi pasata ez den berriz ere ilea eroriko. Edo pilulak hartu behar ote diren edo...

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. Pilulak hartu behar dira indartzeko, lehendabiziko hilabeteetan, medikuek han behintzat kontatu zigutenez. Eta beste galdera bat, eroriko ote den. Ba Ikerrek kontatu zigun berak baduela aseguru bat edo urte-kopuru bat eman ziotela: 30 urte: aseguratuta omen dago jartzen dioten ile hori 30 urtetan. Eroriko da? Ba agian atzetik daukana, baina ile horrek beste 30 urtetan iraun behar omen du.

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Buruko inplanteak jartzea ebakuntza bat da, medikuntza estetikoaren atalean sartzen den prozedimendua. Ez da, hortaz, osasun publikoaren ardua, Oihane?

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. Ez. Eta horregatik esaten digute Osasun Sailean gai estetiko bat dela eta ez dutela hor sartu nahi. Gauza bera espainiar estatuko Osasun Ministerioan: ez omen daude kezkatuta, ez ditu kezkatzen urtero 10.000 lagun era honetako inplante bat egiteak.

3. ariketa

MAITE ARTOLA KAZETARIA. Bilbora hurbildu direnen prozesu hori bera, jada, amaitu du Ikerrek, ez? 2017an egin zioten berari inplantea, eta begira ze gustura dagoen.

IKER. Ni 27rekin aurreneko aldia pasatu nuela makina a cero. 27 urterekin kalbo (burusoil) geratzeak ez zidan inongo grazia egiten. Bai, hasi nintzen begiratzen, eta teknikaren arabera, mikroinjertoekin ileak banaka-banaka sartzen zituen. Turkian zen, el boom, merkeago: 2150. Nik galdetu nuen Svenson-en, Madrilen, eta 18.000 euro, edo 16.000 euro. Eta esan nuen, "16.000 eurogatik kalbo segitzea hobe".

2017an, udara batean, begiratu nuen Internetetik klinika desberdinak zeudela, eta holaxe hasi nintzen. Sede (egoitza) Bartzelonan daukan enpresa bat dela [dena] CapilCLINIC, harekin hitz egin nuen nik. Juxtu, bakarrik da, mikro, mikroinjertoen enpresa bat, daukala [daukana] frankizia Bartzelonan. Eta berak esplikatzen dizu dena, telefonoz. Eta egiten diozuna da, bidaltzen dizkiozu berari argazki batzuk zure burua nola dagoen, eta berak bidaltzen du Turkiara eta medikuak esaten dizu gutxi gorabehera zenbat injertorekin soluzionatu (konpondu) litekeen. Eta niri esan zidaten 4.000-4.500 inguru horrekin nahikoa zela. Gauza da, behar dela "zona donantea" ona eduki, "la zona donante" da hemendik hartzen dizuten ile hau.

OIHANE YUSTOS KAZETARIA. Belarri-ingurutik.

IKER. Bai. 5.000 injerto baino gehiago ez dago egiterik, ez dago egiterik interbentzio bakoitzeko. Elejitzen (aukeratzen) duzu zuk zein egunetan nahi duzun egin: ba igual, hemendik bi hilabetera. Deitzen diozu eta esaten diozu: "Bidali iezadazu... abioia hartu duzula, jakiteko bazoazela", eta bera ja enkargatzen da denaz: hotelaz, transporteak (garraioak) eta dena... Iristen zara Turkiako aireportura, eta daukazu tipo bat -hola, kartel batekin-, eta harengana zoaz. Itxoiten duzu, porke (zeren) ba leku desberdinetatik jende gehiago dator, denak kalbo (burusoil).

Nik hasieran ikusten nuen: "Ni hemen Turkian ea nora n(ih)oan, hemen cuatro latas batean...". Baina ez, Mercedes Vito batean, horrela, kotxe zera bat, elegantea... Esaten nuen, "bueno, behintzat...". Sartu ziguten [gintuzten] denak furgonetan, eta 5 izarreko hotel batera, afaria eta dena barne.

Eta hurrengo egunean 7etan, klinikan, azpian, ba 3 lagun joan ginen. Orduan, analisiak eta egiten dizkizute ea ondo zauden, ez zauden, ez dakit zer. Taka!, dirua momentuan pagatu behar da. Horrek bai ematen duela pixka bat... Egiterako pagatzea, ez? Ba ziren 2.100 euro, eta ya está (kito): ez duzu ezer egin behar. Beraiek eramaten dizute [zaituzte], beraiek ekartzen dizute [zaituzte]: ez da behar ez turkoa, eta ez ingelesa.

Gero, nik joan eta etorri egin behar nuelako; ni joan astelehenean eta asteazkenean hemen nengoen, baina 50 eurorengatik daukazu beste bi egun gehiago egitea. Osea, (Alegia) dena dago muntatuta (antolatua) nahi baduzu astebete pasa Turkian.

